


GIPUZKOAKO BASOEN KOIUNTURA ETA OSASUN TXOSTENA 2021

Gipuzkoako Baso Elkarte (GEBE)



Kriptomeria eta sekuoia dira intsinisaren ordezk nagusiak eta basoberritzearen buruan berretsi dira

- Intsinis pinuak hiru urte jarraian egin ditu inolako birlandaketarik gabe, eta ia 5.000 hektarea galdu ditu 2019tik
- Baso-jabeek 2.361 hektarea berbasotu dituzte azken hiru urteetan bi espezie horiekin, eta beste 749 ha hazkunde moteleko hostozabalekin
- Hamarkadetan lehen aldiz, hostozabalak koniferoak baino gehiago dira
- Basoak Gipuzkoako % 61 estaltzen du. Estatuan ez da beste horrelakorik
- Klima-aldaketara egokitzeko basogintzaren bidean, zedro atlantikoa frogatzen hasi da GEBE. Aurreikuspenek diotenez, pagoa eta bertako haritza bezalako espezieek Europako iparralderantz egingo dute mende honetan zehar eta 60 urte barru kinka larrian egon litezke gurean

GIPUZKOAKO BASOA 2021

Banda marroiak jota, gaixotuta, gure landa lurretatik kentzen den intsinis pinuaren lekua kriptomeria eta sekuoia betetzen ari dira. Lehenengoa batipat. Kriptomeriak gorakada handia egin du Gipuzkoan azken urteetan eta horrela adierazten du HAZI-k egin berri duen baso mapak. Airetik hartutako irudien bidez egiten du azterketa landa sustapenerako euskal erakunde publikoak eta bertan argi ikusten da intsinis pinuak gurean jasan duen atzerakada. **Intsinis edo radiata pinua Gipuzkoako espezierik hedatuena izaten jarraitzen duen arren, bere gainbeherak ez du etenik.** Zuhaitz masa osoaren % 35 betetzen zuen intsinisak duela bost urte; % 24 duela bat; eta azken datuen arabera, % 22,6 soilik: 27.600 hektarea inguru. Are gehiago, azken hiru urteetan ez da espezie honetako zuhaitzik birlandatu eta 5.000 hektarea galdu ditugu 2019tik hona.

Estatu osoan zuhaitz masa gehien duen lurraldea izaten jarraitzen du Gipuzkoak. Azken bi urteetan, 285 hektarea gehiago dira. Lurralde osoaren azaleraren % 61, 6 betetzen dute zuhaitz-masek gaur egun. 68 milioi zuhaitz gutxigorabehera, 121.865 hektareatan banatuta. Eta horietatik guztietatik, 27.127 hektarea (22%) Natura 2000 Sarearen baitan daude: bertan, pagoa (11.682 ha) eta bertako haritza (2.184 ha) dira nagusi.

Hala eta guztiz ere, baso-abandonuak aurrera darrai. Gipuzkoako Baso Elkartearen kezka larriena abandonua da. Arazo larria. Geroz eta gehiago dira bertan behera utzitako basoak eta baso misto atlantikoa (teknikoki horrela esaten zaio birlandatu gabe bertan behera utzitako azalerei) deritzanak azken urtean beste 196 hektareako gorakada egin du.

Abandonatutako sailek zuhaitz masa osoaren % 16,1 dira gaur egun: inongo zaintzarik edo kudeaketarik ez duten (ez publiko, ez pribatu) 19.666 hektarea. Lurrazal hauek larreak eta pinudi zaharrak ohi dira, baina ez dituzte birlandatu, eta sastrakak inguratzen dituen espezieen amalgama dira orain. Etorkizuneko suteetarako erregaia eta bide hila larrialdietarako ibilgailuentzat.

Euskadin gaur egun abandonatuta dauden 38.011 hektareetatik erdia baino gehiago (19.666) Gipuzkoan daude. **Azken 25 urteetako bilakaera kezagarria da: 1996an 12.223 baso zeuden Gipuzkoan, eta ordutik % 61 igo da.**

Abandonu gero eta handiago horren adierazgarri da, halaber, azken bost urteetan 2.000 hektareako landaketa-basoa desagertu izana, zuzenean sastrakadi bihurtu direnak.

Horren aurrean, baso-jabeen ahalegina nabarmena da oraindik. Intsinisa landatzeari utzi zitzaionetik (dagoeneko hiru kanpaina dira, landaketa berririk gabe), Gipuzkoan ia 4.000 hektarea landatu dira beste espezie batzuekin, antzinako pinudietan.

Kriptomeria (2019tik 2021era bitartean 1.658 hektarea populatu) eta sekuoia (703) dira erabilienak. Kriptomeriak, zehazki, hostozabalen landaketak eta itsas pinua gainditzen ditu dagoeneko azalera.

Baso-mapa berriak espezie horren 563 hektarea berri jaso ditu urte bakar batean, eta litekeena da haren azalera handitzen jarraitzea, sekuoia bezala; izan ere, biak horiek izan dira 2021ean sartutako zuhaitz nagusiak, Aldundiak emandako datuen arabera; eta kontuan izan behar da landare berriak txikiegiak direla aireko irudien sistemak sailkatu ditzan.

Zehazki, azken 2020-2021 kanpaina 502 hektarea kriptomeria landatu dira, eta 324 hektarea baino gehiago sequoia sempervirens. Ondoren, itsas pinua dator, Landetakoa. Zuhaitz hau ere gora egiten ari da Gipuzkoan. Azken hiru urteetan 472 ha landatu dira.

Juan Carlos Berraondok, GEBEko presidentea, baso kudeatua izatearen garrantzia azpimarratu du, eta egungo abandonu-mailak geldiaraztearena. "Birpopulatzea lehenengo urratsa da, baina mendi bat aurrera ateratzea landatzea baino askoz gehiago da. Kudeaketan eragin behar dugu, eta horrek bideragarria eta iraunkorra izan behar baitu nahitaez. **Bideragarritasunik gabe, abandonua dator; eta jasagarritasunik gabe, ez dago etorkizunik. Eskutik helduta doaz biak**", esan du.

Berraondoren ustez, "birpopulatzeak urteetan zehar konpromiso bat izatea eskatzen du, mendi horrek aurrera egin dezan eta bere funtzio anitzak bete ditzan. Mendi bakoitzak bere funtzioa duelako: ekosistemikoa, ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa".

Gipuzkoako Baso Elkarteko lehendakariak "eskerrak" eman nahi izan dizkie azken urtean basoberritzeak egin edo landaketa berriak zaintzeko behar-beharrezko lanak egin dituzten 1.000 baso-jabeei. Eta "guzti horiekiko sentsibilitatea" eskatu die erakunde publikoei: **"Gipuzkoako baso-jabea oso lotuta dago lurrarekin eta naturarekin, baina, era berean, lehengai iturri ere bada. Eta kontuan izan behar dugu etorkizunean, zero emisiora bideratuta egongo den eszenatoki batean, eta erregai fosilak lehengai garbi eta berriztagarriekin ordezkatu behar ditugun horretan, zura lehengai garrantzitsua izango dela, bai ala bai. Etxeko egurra, herrialdekkoa. Hori ere zero kilometro politika da**", esan du.

Hostozabal gehiago koniferak baino

Azken hamarkadetan lehen aldiz, hostozabalak (% 50,2) koniferoak (% 49,8) baino gehiago izan dira. Duela 25 urte, adibidez, hostozabalek lurraldearen % 40 hartzen zuten, eta koniferoek % 60.

Azken 2020-2021 kanpainan, adibidez, 213 hektarea hostozabal landatu dira (eukaliptoak kontuan hartu gabe), eta 1.080 hektarea bost urtean. Azken bosturtekoan landatutako hostozabal berrien azalera hiru aldiz biderkatu da aurreko bosturtekoarekin alderatuta.

Ondorioz, Gipuzkoa gaur egun txanda luze, ertain eta laburreko zuhaitz-espezie ugari dituen lurraldea da: 70 bat espezie ezberdin eta dozena bat mila hektareatik gorakoak.

Pagoa (% 15) da hostozabalik zabalduena, eta, ondoren, bertako haritza (% 7,5). Bi espezie autoktono horien masek lurraldeko zuhaitz-masaren % 22,5 hartzen dute.

Pagoa, gainera, intsinis pinuaren atzetik, azaleko garrantzia duen bigarren espeziea da. 17.581 hektarea zeuden 1996an, eta 2022ko otsailean argitaratutako azken baso-mapak 18.320 hektarea azaltzen ditu: 141 hektarea gehiago azken urtean, eta ia 750 hektarea gehiago 25 urtean.

Banda marroia eta beste gaixotasunak

Banda marroia arazo handia da oraindik. **Gaixotasunak gogor eraso du azken hilabeteetan**, eta GEBEk, Euskadiko Baso Jabeen Konfederazioaren bitartez, laguntza eskatu dio Eusko Jaurlaritzari, 1989ko suteetan eta 2010eko haizeteetan egin zuen bezala, ekarpen ekonomikoak egin ditzan.

HAZI-k emandako azken datuen arabera, Gipuzkoan 2021eko urrian zutik geratu ziren 27.800 intsinis pinu hektareetatik, % 40 inguru banda marroiaren afekzio handia dute, eta gainerakoak libre (% 40) edo afekzio arina dute (% 20), gutxi gorabehera. Horregatik, **azken hiru urteetan ez da intsinis pinu hektarea bat ere landatu gurean**.

Gaur egun, txalara izeneko onddo batek ere erasotzen die lizarrei, eta hori da, hain zuzen ere, iparraldeko European lizarrak ia erabat desagertzearen eragilea; Eurasiatik dator eta Euskadin dago jada. Ez du sendabiderik.

Baina onddoen erasoak ez da fenomeno isolatu bat. Zuhaitz guztiek jasaten dituzte ziklikoki onddoen erasoak. Esate baterako, XIX. mendeko azken herenean eta XX. mendeko lehenengoan, gaztainondoaren tintaren gaixotasunak, ondoren txankroak jarraituta, ia amaitu dute gaztainondoekin; haritza ere ez zen salbatu oidioaren erasotik.

Joan den mendean, beste infekzio bat gertatu zen, grafiosia, zumar gehienak akabatu zituen, nahiz eta gaur egun erresistenteak diren zuhaitzak sumatzen diren. Duela 20 bat urte ere fusarium eraso bat izan zen intsinis pinuaren gainean. Larizioek banda gorria dute, Douglas izeiek Suitzako erroia, etab.

Basoberritzearen mendea: % 25etik % 61era

Zuhaitz-masaren % 61 ez da bakarrik etorri. Izan ere, 100 urtetan sekulako aldaketa eman da. **XX. mendearen hasieran, Gipuzkoa eta Bizkaiko baso-azalerak lurralde osoaren % 25 hartzen zuten.** Foru-aldundiek mintegiak eta lursailak sortu zituzten hainbat menditan espezieak probatzeko. Hostozabalen artean, hiru haritz espezie entseiatu ziren, bertakoez gain: zumarrak, ezkiak, bananak, intxaurreak, akaziak, lizarrak, astigarrak eta makalak. Koniferoen artean: pinu basatia, hasiera batean gehien erabiltzen dena, larizioa, pinasterra, intsignisa, eta lawson alertzeak, izeiak eta altzifrea.

Laster ikusi zen ekimen pribatuari gehien interesatzen zitzaion espeziea intsinis pinua zela, eta 40ko hamarkadatik aurrera, II. Mundu Gerra dela eta, baso-birpopulatze ekintza areagotu zen.

Ondoren, 1956ko otsaileko izozteek, intsinis pinu gazte gehienak suntsitu zituzten, eta horrek ekarri zuen Korsikako larizio pinua, Japoniako alertzea edo Douglas izeia bezalako espezieekin dibertsifikatzea.

Baso-jabeak, adoregabatu beharrean, birpopulatze-ekintza biziagora jo zuen, garapen industrialarekin batera. Garapen horrek, aldiz, landa lurretako eskulana xurgatzen zuen, eta, ondorioz, larre- edo laborantza-azalera handiak bertan behera geratu ziren. Abandonatutako lur horiek zuhaitzez bete zituzten baso-jabeek.

Klima aldaketara egokitutako basogintza

Gaur egun, eta klima-aldaketaren mehatxuaren aurrean, etorkizuna zalantzazkoa da. Europan, klima aldaketara egokitutako basogintza moldagarria delakoa indarra hartzen ari da; hau da, aurreikusten diren etorkizuneko baldintza klimatikoekiko erresistenteak diren espezieak sartzeko ari dira.

Izan ere, Gorka Altuna Haziko teknikariak Gipuzkoako Baso Elkartearentzat egin berri duen azterketak azpimarratzen duenez, **klimaldaketak basogintza-sektoreari dagokionez Euskadin espero diren inpaktu nagusiak "garrantzitsuak" dira.**

Azterketa horren arabera, **nitxo ekologikoko ereduak erabiliz egindako iragarpenek eragin nabarmena dute aztertutako espezieengan (Q.robur, F.sylvatica eta P.radiata),** eta 2080rako nitxoak ia erabat desagertzea eta XXI. mendean zehar Europa iparralderantz pixkanaka lekualdatzea espero da.

Muturreko klimatikoak areagotzea espero da, suteak, lur-mugimenduak, lurzoruaren higadura eta lurzoruko karbono-erreserba galtzea erraztuko duena. Horregatik da inoiz baino garrantzitsuagoa basoen kudeaketa. Kudeaketa iraunkorra.

Etorkizun aldakor horretara ondo egokitu daitezkeen espezie berri horien artean, GEBEK balioetsi du zedro atlantikoa kontuan hartu beharreko espeziea izan daitekeela Gipuzkoan. "Zedro-baso gehienak 900 metrotik gorako altueran badaude ere, Euskadin ondo gara daitezkeela uste dugu", dio Berraondok. Gipuzkoan zuhaitz hau ia ez da ikusten.

Eukaliptoak Gipuzkoan

Eukaliptoak Gipuzkoako lurzoruaren 1.599 hektarea hartzen ditu, zuhaitz-masaren % 1,3. Kantauri itsasoko ertzeko lurralde gehienekin alderatuta, oso presentzia mugatua du espezie honek gurean. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021ean ezarritako mugak, 25 urte bete aurretik aprobetxatzea debekatuz (lehen 15 ziren), balio erantsi handiagoko erabilera berrietara bidera lezake espeziea, ez bakarrik paper-orea egiteko zelulosara.

Goiz da jakiteko neurri horrek eukalipto gehiago landatzea eragotziko duen ala ez. Kontuan izan behar dugu, gure gizarteko lehengai nagusietako bat dela eukalipto eta kontsumitzen dugun gehien-gehiena inportatu egiten dugula. Zuhaitz honen zura oso preziatua da, eta egunero erabiltzen ditugun hainbat produktu egiteko erabiltzen da: kalitateko papera, folioak, eskuoihaltxoak, pixoihalak, osasunerabilerarako ehungintza, hala nola maskarak eta zelulosaz egindako produktuen abar luze bat; arotzerian ere erabiltzen da.

Euskadin 24.771 hektarea eukalipto daude, mota desberdinetakoak, baso-mapa berriaren arabera: zuhaitz-masaren % 6,2. **Eukaliptoak landaketen gainean landatzen da, inoiz ez baso autoktonoaren gainean.**